



ONDARROAKO UDALA

1

## UDAL EUSKARA BATZORDEA

Batzar-zk.: 2011/2

Eguna: 2011-11-30

Hasiera-Amaiera: 18:35 - 19:55

Tokia: Batzar-gela 1

## UDAL EUSKARA BATZORDEAREN BILERA-AGIRIA

### Batzartutakoak:

---

Leire Beitia	Udal Euskara batzordeburua
Iera Arantzamendi	Udal Euskara lantaldeko kidea
Patxi Etxaburu	Ondarroako Historiazaleak taldeko ordezkaria
Imanol Oruemazaga	Ondarroako Historiazaleak taldeko ordezkaria
Itxasne Murillo	Txomin Agirre ikastolako ordezkaria
Edurne Arantzamendi	Zubi Zahar ikastolako ordezkaria
Bakarne Aretxabaleta	Ondarroako Institutuko ordezkaria
Gurutzne Anakabe	Zaldupeko eskolako ordezkaria
Txomin L. Aramaio	AEKren eta Radixu irratiaeren ordezkaria
Nagore Alegria	Txirrimorraski ODLTren ordezkaria

### Batzarrera etorri ez direnak:

---

Miren Urresti	EAJren ordezkaria (ezin etorria adierazia)
Arantza Atxurra	Ezker Abertzaleko kidea (ezin etorria adierazia)
Eladino Gonzalez	Ondarroako Osasun Zentroko arduraduna
Mikel Santiso	Antiguako Ama Arrantza Eskolako ordezkaria
	Lea-ArtiBAI euskarari
	Zatozte

### Batzordearen idazkaria:

---

Maite Rey

### AZTERGAIAK:

1. Aurreko batzarreko bilera-agiria onartzea.
2. 2012ko aurrekontua
3. Literatura
4. Logotipo lehiaketa
5. Eskariak eta galderak.



ONDARROAKO UDALA

2

## UDAL EUSKARA BATZORDEA

Batzar-zk.: 2011/2

Eguna: 2011-11-30

Hasiera-Amaiera: 18:35 - 19:55

Tokia: Batzar-gela 1

### Esan-eginak:

2. Aurrekontuaren aurreikuspena banatu da. Udaleko lantaldearen ikuspegitik landu dutela azaldu dute batzordeburuak eta Iera Arantzamendik, baina, denboraren premia eragin du horrela egitea. Dena dela, hurrengo batzarretan aurrekontu proposamenak egin daitezkeela argi utzi dute.

Segidan, aurrekontuan jasotakoak azaldu ditu Batzordeburuak; hala nola: literatura aste bat antolatzea, Bide Onera Zinearekin hitzarmen bat egiteko asmoa dozena bat sarreraren truke euskarazko pelikulak sustatzeko (Udalak zozketatuko lituzke sarrerak herritarren artean horrela euskal kultura sustatu), logotipo lehiaketa, itzulpen zerbitzua eta euskara ikasteko diru-laguntzak (asmoa delako laguntza portzentajeak handitzea).

Batzordekideak ados egon dira aurkeztutako aurrekontu proiektuarekin.

3. Literaturaren gaia zer den azaldu du batzordeburuak: Lantalde bat batu da (azaroaren 10ean) herriko idazleekin (Kirmen Uribe, Kemen Lertxundi, Jose Mari Urteaga), Ana Urkizarekin ez zuten kontaktatu eta Leire Bilbaok eta Mikel Etxaburuk ezin izan zuten etorri. Lantaldean hiru gai landu zituzten: Augustin Zubikarai lehiaketak, Udal Liburutegia eta Liburu-azoka. Eta hauek izan ziren, besteak beste, egindako hausnarketak:

#### ***Augustin Zubikarai nobela saria:***

- *Hasi berrientzat tranpolin bat izan daiteke, baina ez du oihartzun handirik idazleen artean.*
- *Garrantzitsua da kanpora begira zabaltzea; editorea, epaimahaia eta idazlea Ondarroan daudela egitea prentsaurrekoak eta sari banaketa.*
- *Idea bat: herritarrek pertsona bat saritzea euskal literaturan egindako bideagatik, herritarren artean egindako aukeraketa baten bitartez.*
- *Literatura aste bat antolatzeko proposamena.*

#### ***Augustin Zubikarai Letren jaialdia:***

- *Herriko idazleak ikastetxeetara eramatea.*
- *Ikastetxeetan liburu onena eta margolaririk onena aukeratzeko.*
- *Mikroipuinak egiteko (240 -280 karaktere) lehiaketa bat antolatzea.*

Ikastetxeetako ordezkariak azaldu dute idazleak ikastetxeetara eramaten direla. Eta horrez gain, aurten, BFAk “*Idazleakaz*” egitaraua ipini duela martxan gaurko idazle batek idazle klasiko baten berri emateko helburuarekin. Ana Urkizak Augustin Zubikarai aukeratu du eta Leire Bilbaok, berriz, Txomin Agirre. Eta Zubi Zahar ikastolako ordezkariak esan du beraiek bai parte hartzen dutela libururik onena aukeratzeko programetan.



ONDARROAKO UDALA

3

## UDAL EUSKARA BATZORDEA

Batzar-zk.: 2011/2

Eguna: 2011-11-30

Hasiera-Amaiera: 18:35 - 19:55

Tokia: Batzar-gela 1

### ***Liburutegia:***

- *Topaleku bihurtu behar dela. Irakurleen kluba egin.*
- *Dinamizatu eta bertan irakurtzen diren liburuen gainean eztabaidak bultzatu*
- *Beste liburutegietan irakurtzen direnak jakin eta trukeak egin.*
- *Irakurketa dialogikoak egin.*
- *Emanaldi ezberdinak antolatu (ipuin kontalariak).*

### ***Liburu Azoka:***

- *Lanak azokan bertan aurkeztea indartu beharko litzateke. Historiazaleak taldeak azken urteetan egin duen moduan.*

Historiazaleak taldeko ordezkariak esan du hori Udalak egin beharreko zerbait dela eta ekarriko dutela proposamen bat.

Beste alde batetik, eta gaiarekin zerikusia duelakoan, Aek-ko ordezkariak ekimen berri baten beri eman du (ez AEK-ko kide moduan): Aitzol Aramaioren hurreko lagun batzuek ekitaldi bat antolatuko dutela, urtero, haren omenez. Musika, literatura eta zinea uztartuko dituen ekitaldi bat izango da.

4. Logotipo lehiaketa zergatik proposatzen duten azaldu du batzordeburuak: Batzordeak herrira begira gauzak egiten ditunean irudi bat izan behar du, erreferentzia bat, identifikatuko duena.

Batzordekideek azpimarratu dute gero erabili behar dela. Batzordeko idazkariak esan du, hain zuzen, egon zela lehen logo bat, Euskara Batzordea sortu zenekoa, baina azken hogeitun urtetan ez dela erabili.

Amaitu aurretik, Batzordeburuak azaldu du bere asmoa dela gaur planteatutako ideiak denok aztertzea eta Udal Euskara Batzordeak erabakia hartzea hurrengo batzarretan, denon artean herriari eskaintza bat egiteko helburuarekin.

## **ERABAKIAK**

- **Hurrengo batzar-eguna onartu da: 2012ko urtarrilak 11.**

Eta honenbestez, amaitu da bilera.

Batzordeburua  
Leire Beitia

Idazkaria  
Maite Rey